




# piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 110. alea 2005eko apirilaren 29

Herriaren itxuraldaketa  
**SANTA ANAKO ETXEA BOTATUZTE**



Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK

Telefona: 34 943 75 21 00

Faxa: 34 943 75 17 12

20590 SORALUZE

## DANTZARI EGUNA 2005

"Euskal jai batzordeak dantzari eguna antolatzen lagundu duten bolondres, elkarte, taberna eta erakunde guztiei bihotzez eskertzen die emandako laguntza"



**SORALUZKO  
EUSKAL JAIXAK**



## Habemus Papa!

GORKA PRIETO

**Z**enbat aldiz entzun ote dugu 3garren munduari laguntza (ekonomikoa) eman behar zaiola? Berez, arazoaren erroari heldu ezik, laguntza ekonomiko soilak herrialde hoiien egoera larria ez luke asko aldatuko. Gose denari ez zaito arrainik eman behar, arrantza egiten erakutsi baino.

Bere burua kristautzat duen edo dugun edonork egun hauetan zehar behin edo behin pentsatu izan dugu Aita Santuaren inguruko muntaia guzti hori, gutxienez apur bat hipokrita badela. Ez da posible (ezta zilegi ere), Vaticanoan bizi diren jauntxoek (hala bait dira), beraien jarraitzailei urkoari lagundu behar zaiola esatea eta beraiek luxuz beteriko burbuila batean bizitzea. Hala ere, kontu hau ez da gaur goizekoa.

Aukeratu duten Aita Santu berria atzerakoia dela diote jakitunek; aurretik zegoena aurrerakoia izan balitz bezala. Ez dio herentzia makala utzi Juan Pablo IIak Benedicto XVIri (horrelako izenekin pelotariak dirudite). Afrikako herrialdeetan IHESaz kutsatu diren pertsona guztiei kondoirik ez erabiltzen jarraitzeko eskatuko (exiji-

tuko) al die Ratzingerrek?

Beste alde batetik homosexualen inguruko kontua ere dantzan dabil azkenaldian. Elizaren jarrera gogor eta atzerakoia parez pare jarri da orain gutxi Espainiar estatuan izan den homosexualen arteko ezkontzen legearen aurka. Zer pentsatuko ote dute homosexual izanik eta bikotea edukita kristautasunean bizi nahi duten milaka eta milaka pertsonak? Eta areago, kristautasuna harantzago bizi eta apaiz diren homosexualak?

Demaseko erronkari egin behar dio aurre elizak eta egin beharko duen bidea luzea da. Eta lehen bait lehen hasi beharko lukete, bestela funeraletan bakarrik beteko dira elizak aurrerantzean (ezin da ukatu asteroko jendetza elizan oso urria dela, gero eta urriagoa) eta horrek eman beharko liguke zer pentsatua elizbarrutia osatzen duten edo dugun guztioi.

Dena den, denborak esango du Benedikto XVI hau nolakoa aterako zaigun, baina momentu batez pentsatu nuen ez zela gustokoagoa izango egun hartan Rouco Varela irten izan balitz hautatua. Hala bai?

Habemus Papa!

## Telegrapak

Aupi. Stop. Udaberri lore usaina dario Pil-pileani. Stop. ummm! ze gozoa!. Stop. zenbat informaziño!. Stop. ia ezti pixkat egitia lortzen dogun. Stop. zuen gozagarri. Stop. baleike baina mikaztasun pixkat be izatia. Stop. danetarako lorak eta polenak izaten dira lorategixotan. Stop. Aurrekontuena da Udabarriko lorerik haundina. Stop. haundin haundina. Stop. baina ez dauka kolore eta usai gozo askorik. Stop. grisak dira petalorik gehixenak. Stop. nahiz eta, badan koloretako petalo ederren bat edo beste. Stop. erle batzuk petalo gris zaliago dira. Stop. ezta ba gure kasua. Stop. Hauteskundiena da bigarren loria. Stop. hau koloretsuagua da. Stop. eta usain edarra dauka loratu berritan behintzat. Stop. ikusi egin bihar zenbat petalo jausten jakozen eta loran jarraitzen daben... Stop. baina erlamiño lartxo darabil inguruan. Stop. Sasi arteko loretxua be hor dabil. Stop. loratu nahixan. Stop. Iparraldeko Ikastolen moduan. Stop. loratuko dira. Stop. lagundu ezker. Stop. euskara, danborrada be bai. Stop. loratu diranak, musika eskolako ikasliak. Stop. horrek bai dirala lorak horrek. Stop. txixixak baina usaitxuak. Stop. eta ez da lorak botatziarren eh!. Stop. ez gara lorak botatzian zaliak!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/UE

pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotipoa:** Jon Gabilondo (943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Silvio Vaz Caro

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## Erreportaia

Joan den apirilaren 14an jarri ziren botaziopean 2005 urterako aurrekontuak, guztira 4.553.018 eurokoak (pezetetan 757 milioi). Gastuei aurre egiteko Udalak 374.590 euroko aurrekontua eskatu behar izan du.

## Zorion agurrak



**Katarine Berrueta**  
Apirilaren 26an  
13 urte.  
Zorionak eta Mila  
zorion!!  
Ama, Aita eta  
Elsaren partez.

### jaiotakoak

June Hernández Muro  
Lore Leturiondo García  
Jon Ander Machado Sola

### hildakoak

Gregorio Lamariano Aldazabal



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Gutunak

### Biolentziak

Dorre Bikien aurkako erasoak izan zeneko une haiek gogoratzean, zergatik galderari erantzuna bilatu nahian ibili baikinena luzaroan. Urrutiko egoera gogor hari zentzua bilatzea izan zen une haietan ateratzen zitzaiguna. Abioiek marraztu zuten hegaldia amaitu ezinezko amets bat zirudien. Bazeuden biktimak, urrutikoak baziren ere.

Distantziak laburtuz, haiengandik ez hain urruti denboran, iazko martxoaren 11n beste atentatu bortitz batek barruak astindu zizkigun. Nortzuk?, galdetzen genuen. Bazeuden biktimak.

Erreakzio eta gaitzespenetatik harago, badira, ene ustez, biolentzia posible egiten duten testuinguruak. Horietako bat biolentziak berak erabiltzen duen arrazionalitatea litzateke. Biolentzia darabiltenek ondo dakite, batzuk zein besteek, emaitza batzuetara eramango dietela. Boterean daudenak biolentziaren legitimitasun bidetik, eta besteek aurre egitearenetik.

Bada iritzi bat non historikoa den ikuspegi batetik abiatuta, biolentziak beste dimentsio batean jartzen gaituen. Ikuspegi hori Erich Fromm pentsalari amerikarrak aztertu zuen. Frankfurt Eskolako partaidea izan zenaren iritzi, egoera zehatzak bultzatzen baitituzte bortizkeria guztiak. Gizakiok gizarte batego partaidea garez gero, exigentzia objektiboak motibazio psikikoak bihurtzen baititugu gure identitatean. Energia psikikoa, energia psikosozialaz baliatuz. Ez dugu ahaztu behar Al Qaeda, IRA edo ETA, Bolondresez osaturiko talde armatuak direla.

Ameriketako Estatu Batuek gizarte kapitalistari hobekien lotzen zaion na-

zioa izanik, gizarte kapitalistetan ematen den kulturatik edaten, kompetentzia baitute ezaugarritzat. Zentzu zabal batean esanda, indartsuena premiatzen denean, besteen porrota bilatzen baita. AEBek beti erabili dezakete indarra, kontrola beraien eskuetan egon dadin.

Hocker-ek "goikoen" eta "behekoen" terrorismoa aztertu zuen. Autore horrek esaten duenez, goikoek erabaki politiko-en izenean erabiltzen ei dute bortizkeria. Behekoek, ostera, sortu egiten dutela biolentzia dio. Adibideen artean alemanian SSKoek erabili zuten terrorea aipatzen baita, erresistentziak erabilitako arekin konparatuz.

Autore horrek baditu azpimarratze-ko moduko ondorioak. Horietako bat hauxe litzateke: "behekoek amestu egiten dituzte goikoen arauak, eta nahiko lukete, haiek bezala, beraien erabakiak aintzakotzat hartuta ikustea".

Ez nator bat esaten dutenekin gaitzesten dutela biolentzia datorren lekutik datorrela, esaldi horrek gauzak lehen bezala uzten dituelako. Ene ustez, badira New York eta Madril gehiago, Bagdad, Chechenbia edo Euskal Herria izenekin, nahiz eta batzuk besteak baino gehiago aipatzen diren. Egoera hauek bide berriak bilatzera bultzatu beharko gintuzkete; aurkariak elkarri errekonozitu, amaierak adostu.

**Bittor Trebiño**

### LANA

**Itzultzailea.** Bergarako Udalean euskarako itzultzaile bat kontratatu eta lan-poltsa bat osatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Maiatzak 6

### IKASTAROKAK

**Eskalada.** Gipuzkoako Goi Mendi Eskola. Haitzetako eskaladako ikastaroa. Maiatzaren 14-15 eta 21-22. (Mendian federatuta egotea beharrezkoa da). Epea: Maiatzak 12

**Uretako sokorrismoa.** DYA Gipuzkoa. Uretako sokorrismo ikastaroa Zumaian, maiatzaren 7tik ekainaren 11ra, larunbatetan. Epea: maiatzaren 6a

**UEUko udako ikastaroak.** UEUren 33. Udako Ikastaroen Matrikulazioa ireki da. Matrikula epea apirilaren 25etik ekainaren 19ra dago zabalik Informazio gehiago [www.ueu.org-en](http://www.ueu.org-en).

### EKINTZAK

**Auzolandegiak.** Eusko Jaularitza. Euskadiko auzolandegietako plazak: Izen-emateak Internet bidez ([www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net)); beste autonomia-erkidego bateko edo atzerriko plazak: Kultura Sailaren Lurralde Zerbitzuetan. Epea: Apirilaren 26tik maiatzaren 31ra.

**GAZTE OPORRALDIAK!** 2005 (14-17 urte). Izena emateko epea irekia!!! Gipuzkoako Foru Aldundia. Abenturako eta hizkuntzak ikasteko egonaldiak. Zozketarako izena ematea: APIRILAREN 19tik 29ra izango da.

### OROITZA

2004ko maiatzaren 8an hil zen  
**MIREN ALBERDI IZAGIRRE**

*Mirentxu lagun  
Udaberri betean, ezustean,  
zinen gugandik urrundu.*

*Gogoan ditugu, oraindik,  
begi urdin politx horiek  
bizitakoaren islada leun.*

*Elkarrekin pasatako uneak  
solasaldi luze eta beteak.*

*Mirentxu lagun  
Udaberri berria iritsiko zaigu,  
erein dugun lagunartea  
zelai berdean loratuz!  
Enkontrurarte!*

*Zure lagunak*



## Zer irizten dotsazu?

*Apirilaren 17an egin ziren EAEko hauteskundeak. Hauteskondeek legebiltzarraren banaketa berria ekarri dute eta alderdiak buru belarri dihardute gobernu osatzeko negoziazioetan. Horrekin batera, Euskal Herriaren normalizazio politikoa eta bakea lortzeko aukera ere eztabaidagai nagusi bihurtu da.*

# Ze gobernu osatuko dela uste duzu?



**Mila Iturricastillo**  
59 urte  
Etxekoandria

Nik Ibarretzek jarraitzia nahixao neuke eta uste dot jarraituko dabela gainera. Neretako ondo lan ein dau. Neri gustauko litzaidake danak alkartzia eta danak batera jardutia.



**Patxi Plata**  
36 urte  
Igeltserua

Danak ipunak kontatzetik bizi dia, baina nik nere ipuina, nere politikia daroiat: egunero goizeko 7retan jaiki lanera juateko, dirua kobratzeko hilan azkenera heltzeko. Nere ahaleginekin eta izardixakin. Odola, izardixa eta malkuak.



**Pablo Murgoitio**  
44 urte  
Langilia

Neri pentzatzen jata berdina urtengo dala lehendakari, Ibarretxe, bestiak ez dabe urtengo eta. Nik nahixago dot EHAKkin pakatatzen badau, baina uste dot sozialistekin elkartuko dala.



**Amaia Amor**  
18 urte  
Ikaslia

Neri pentzatzen jata Ibarretxe izango dala lehendakari, berti urten da eta. Nik ez neuke inor lehendakari izaterik nahi, politikian aurka naolako. Ez nao ados inor danon gainetik egotia-kin.



**Adelaida Moya**  
70 urte  
Jubilaua

Nik ez dakit. Nik politikaz ez dakit ezer. Gehixen balixo dabena ipini deixela. Dana ondo jua deila eta ez deila ezer pasau. Bakia euki deigun, bakia. Horrek balixo dau munduko urre guztia baino gehixao.



**Carlos Duar**  
45 urte  
Jubilatua

Patxi Lopez izan biharko litzake lehendakari, zintzuagua dalako. Ibarretzek asko berba ein dau, baina ez dau askorik ein; bestiak ostera, nobliaua emoten dau. Oin gainera Ibarretzek boto asko dakaz bere kontra.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ  
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

## Bai Euskarari ziurtagiriak berritzeko ekitaldia



Datorren eguaztenean, maiatzaren 3an egingo da Euskararen Ziurtagiria berritzeko ekitaldia Kapilan (20:00etam). Bertan, joan zen urtean ziurtagiria jaso zuten 30 eragileetatik 28ri (2 talde desagertu egin dira) agiria berrituko zaie. Taldeon lanaren jarraipena eta ebaluaketa egin duen Ugaitz Catalan teknikariak azaldu digunez, "talde batzuek mailaz igoko dute aurre-erapauso handiagoak egin dituztelako baina orokorrean denak egin dute ahal-legina eta denek erakutsi dute euskararen normalizazioan aurrera egiteko jarrera. Jende asko mugitu da baina au-

rrerapausorik handienak paisaia linguistikoaren alorrekoak izan dira; kartelak, oharrak eta bestelako ageriko paperak euskaraz jartzen hasi dira, batzuek euskara hutsean."

Banaketa ekitaldian, Kontseiluko, Udaleko eta Euskalgintzako ordezkariak izango dira. Ziurtagiriak banatzeaz gainera, gizarte eragileen ordezkariak zoriondu eta etorkizunean euskararen normalizaziorako pausoak ematen jarrai dezaten eskatuko diete. Ekitaldian ostean, luntxa izango da bertaritzen diren guztiendako.

## Aparkalekuak kenduko dituzte



SACIAKO urbanizatzeko lanak direla eta, datorren martitzenetik aurrera ezin izango da Estazioetik Arraikuara bitarteko aparkalekuan autorik laga. Nonbait, datozen egunetan makinak aparkalekutik gertu ibiliko dira eta obrako zuzendariak nahiago izan dute lanak bukatu bitartean aparkatzea debekatzea, kalteak saiheste aldera.

## EHNA ateratzeko aukera

Udalbitzako herriko ordezkariak jakinarazi duenez, apirileko, maiatzeko eta ekaineko azkenengo ostiraletan EHNA (Euskal Herriko Nortasun Agiria) eskatzeko aukera izango da Udaletxean. Horretarako, 19:00etatik 20:00etara bitartean, karneteko 3 argazki, padroia eta 15 euro entregatu beharko dira. Dagoeneko 230 soralu-zetarrek atera dute EHNA.

## Etorkinak erregulartzeko beste aukera 1

Etorkinek euren egoera erregulartzeko bete beharreko baldintzetako bat 2004ko abuztuaren 7a baino lehen hemengo Udaletxeren batean erroldaturik egotea zen. Agiri hori ez dutenak beste agiri batzuen bitartez erakus ahal izango dute data hori baino lehenago hemen bizi zirela, osasun txartela edo lan-alta bat erakutsiz esaterako.


## Ikuspegi berriak herrian

Azkenengo 5 urtean 140 etxebizitza berri egin dira Soraluzen. Berriak egin ahal izateko beste eraikinen bat bota behar izan dute, tailer edo etxe zaharren bat gehienetan. Horrek gure herriko paisaia aldatu du, begiendako agerian utziaz etxeek tapatzen zituzten leku eta bazter ikusgarri zenbait.

Ale hontako azaleko argazkian, esaterako, Galipota beste aldetik ikusita ageri da. Aldameneko argazkian, berriaz, Elizaren zati haundi bat ikus daiteke Santa Ana Kaletik begiratuta.



## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
Txipiroiak, Barazki Menestra,  
Gixauak...  
Asteburuan plater konbinatuak  
Enkarguak etxerako  
(bazkariak eta afariak)  
Kalebarren, 5  
Tfnua 943 75 13 87

## Instalaciones Kalebarren S.L.




GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

# EAJ/EA koalizioa garaile baina 332 boto gutxiagorekin

## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO EMAITZAK 2005



Baliogabeak % 0,33

Zuriak % 0,74

- Abstentzioa
- EAJ-PNV / EA
- PSE-EE / PSOE
- PP
- EHAk-PCTV
- EB
- ARALAR

ESERLEKUA	
2005	2001
% 31,04	% 21,3
29	33
18	13
15	19
9	7(EH)
3	3
1	-

Apirilaren 17an Eusko Legebiltzarrerako egin ziren hauteskundeetan, EAE mailan izan diren antzeko emaitzak izan dira herrian ere.

Soraluzen ere EAJ-EA koalizioak lortu du botorik gehien (928 bozka) baina EAE mailan bezela jeitsiera nabarmenarekin (332 bozka gutxiago). EHAk eta PSE-EE-k igoera arinak izan dituzte (EHAk 3 boto gehiago eta PSE-EE-k 4). Alderdi Popularrak berriz, jeitsiera handia izan du (235 bozka gutxiago) EAE osoan bezela. EBA bostaga-

rren indarra izan da hauteskundeotan eta EAEn gertatu denaren kontra arinki bada ere (19 bozka gehiago) gora egin du herrian. Azkenik, Aralar alderdiaren datuarekin alderaketarik egiterik ez dago, Alderdi hau lehen aldiz aurkeztu baita Legebiltzarreko hauteskundeetara.

Abstentzioari dagokionez EAE mailakoaren antzekoa izan zen hau ere. Hauteskunde eguneko gertaera azpimarragarriena, EHNArekin bozkatzeko debekua izan zen, mahai batean ez beste denetan ez zuten onartu.

## SORALUZeko EMAITZAK 2005

Baliogabeak % 0,33

Zuriak % 0,33

Abstentzioa

EAJ-PNV / EA

EHAk-PCTV

PSE-EE / PSOE

PP

EB

ARALAR

### SORALUZeko BOTOAK

2005	2001
% 31,22	% 20,1
928	1260
509	512(EH)
434	430
309	544
93	112
90	-

## Osintxuko zubi berriaren inaugurazioa

Apirilaren 23an, Soraluze kooperatibaren ekimenez eraikitako zubi berria inauguratu zen Osintxun. Zubiaren kostua 1.300.000 eurokoa izan da eta ia osotasunean Soraluzeke kooperatibisten artean ordaindu behar izan dute. Ekitaldian zinta mozten Rafael Barrenetxea eta Miguel Herrera izan ziren, Soraluze-ko zuzendari gerentea eta presidentea hurrenez hurren.



## Kzgunean ikastaro eskaintza berria

Maiatzaren 3an "Zure kanala sintonizatu" 11:00etatik-13:00etara irratia eta telebista nola ikusi eta entzun ikasiko da. "Euskara ziberespazioan" maiatzaren 10ean 9:00etatik-11:00etara euskal webguneak bisitatu eta euskarak internetean duen lekua aztertuko da. Hilaren 17an "News" 11:00etatik-13:00etara interneteko zerbitzu hau ezagutzeko aukera. Itsasoan murgil zaitez maiatzaren 24an 9:00etatik-11:00etara. Eta azkenik hilak 31n Zure aseguruua kontratatu 11:00etatik-13:00etara. Zentroa goizez irekita egongo da 9etatik 13etara asteartero.



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren, 10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

## LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g  
138 Postakutxa

tf: 943752150  
Faxa: 943752118

## SORALUZE

# 4.553.018 euroko aurrekontuak 2005erako



Apirilaren 14an Udaltzarrean hartutako irudia.

Joan den apirilaren 14an jarri ziren botaziopean 2005 urterako aurrekontuak, guztira 4.553.018 eurokoak (pezetetan 757 milioi). Gobernu Batzordeak aurkeztutako aurrekontuak (iazkoak baino 650.000 euro haundiagoak) oposizioko alderdi guztien aurkako botua jaso zuen; ezezko 5 boto. Aldeko botoak ere 5 izan ziren: EAJ (3)- EA(1)- ko zinegotzienak eta alkatearena (EAJ-ko zinegotzi bat arazo pertsonalegatik ezin izan zen Udaltzarrean egon). Berdinketa alkatearen graziazko botoak hautsi zuen. Gastuei aurre egiteko, Udalak 374.590 euroko mailegua eskatu du.

Aurrekontuetako sarrera nagusiak Foru-fondotik (2.077.330 euro) eta Izartu II programatik jasoko dituen dirulaguntzak dira (632.862 euro).

Gastu nagusiak, berriz, sail desberdinetan banatuta daude:

## Hirigintza: Izartu II

Udalak Hirigintzako egitasmoetara bideratuko du aurtengo aurrekontuaren zatirik handiena. Izartu Ieko saihesbide berriarekin amaitu ostean, Udalak Izar-

tu II programako lanak hasiko ditu orain. Santa Anan eta Kalebarrenian lur berria jarri eta espaloiak kenduko dituzte. Arraikua auzoan, berriz, konponketak eta parke txiki bat egingo dituzte. Ezozki Bideko Arrizabaleta parkea ere naituko dute. Azken hau egiteko Izartu Ieko partida baten ondarrak erabiliko dira.

## Hirigintzak izango du partidarik handiena

### Ikastetxeko patioa estaltzeko

Ikastetxeko patioa estaltzeko Udalak 139.113 euroko aurrekontua dauka.

Kultura arloan, 129.030 euro herriko talde, kultura ekintzak eta jaietarako (Santa Ana eta Andra Marietarako 57.000 euro) erabiliko dira. Kultur talde desberdinek ez dute dirulaguntzetan aldatuta azpimarragarri izan. Frontoi-ko ikastetxea Musika Eskola eta Istitutuarendako egokitu da.

Gainontzeko Batzordeetan ez dago aldatuta nabarmenik ihazko aurrekontuekin alderatuz.

## DIRU-PARTIDAK BATZORDEKA

### HIRIGINTZA BATZORDEA

1.639.518 eur  
(272.792.841 pta)

### OSASUN BATZORDEA

97.306,04 eur (16.190.363 pt)

### KULTURA BATZORDEA

129.030,00 eur  
(10.648.704,00 pta)

### HEZKUNTZA BATZORDEA

58.117,56 eur (9.669.948 pta)

### EUSKARA BATZORDEA

44.158 eur (7.347.273 pta)

### KIROL BATZORDEA

44.880,00 eur (7.068.077 pta)

### NEKAZARITZA BATZORDEA

41.008,00 eur  
(6.823.157 pta)

### INGURUMEN BATZORDEA

12.020,00 eur  
(1.999.960 pta)



## SALAZAR Altzariak

Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

## Ion Murgizu Pinturak

### MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tif.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030



**SAH-en eritzia**

*“Ez da diru prebisorik herrian dauden premiak asetzeko; haur eskola, gazte txokoa...”*

Soraluzeko Askatasun Haizeak taldeak ausardia gutxi ikusten du Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuetan. Boto azalpenean salatu zuten ez dela diru prebisorik izango herrian dauden premiak asetzeko; haur eskola, gazte txokoak edo herriko talde desberdinendako lokalak egiteko, adibidez.

Bestalde, gogoratu nahi izan zuten euren taldeak azken urteetako proposamenekin jarraitzen duela eta jarraituko duela etorkizunean ere. Besteak beste, Emakumearen Aholku Batzordea sortzea, Euskara teknikariaren lanpostua konbokatzea, Udalbiltza edo nazio eraikuntzari begira dauden proiektuei dirulaguntza bideratzea, euskal fondoaren bitartez, nazioarteko elkartasunerako aurrekontu osoaren %0,7a ematea edo herrian dauden etxebizitza hutsen inguruko azterketa serio bat egitea.



Frontoiko eskolan ez da Kultur Etxerik egingo eta Musika Eskola eta Istitutuarendako egokituko dira gelak.

**PP-ren eritzia**

*“Etxebizitza, kultura eta gizarte zerbitzu gehiagoren premian daude Soraluzeko herritarrak”*

Francisco Javier Núñez alderdi popularreko zinegotziak aurrekontuen transparentzia falta azpimarratu zuen. EAJ-ren gobernuek herritarren premiei irtenbiderik emate jarraitzen duela adierazi zuen. Besteak beste, etxebizitza, zerbitzu sozial eta kultura gehiago eskatu zituen.

**PSE-ren eritzia**

*PSEk diru partida batzuekiko ezadostasuna adierazi zuen baina ez zuen argitu zeintzuekiko.*

Soledad del Bosque PSEko zinegotziak ere ezezko botoa eman zien aurrekontuei. Boto azalpenean adierazi zuen partida batzuekin ez zegoela ados eta horregatik ematen zuela ezezko botoa.



**Oskar Gabilondo  
ALKATEA**

Alkatearekin elkartu gara aurrekontuei buruz eta oposizioak aurrekontuak ez onartzeko eman dituen arrazoen inguruan hitzegiteko.

**-Zer azpimarratuko zenuke 2005eko aurrekontuetatik?**

Alde batetik, pozik gare aurrekontuekin batzorde guztietan egon dala diru igoeria; beste alde batetik azpimarratuko neuke 2005eko aurrekontuak Izartu programari begira egin dirala batez be.

**-Zein iritzi daukazu oposizioko alderdiek aurrekontueri buruz esan dutenaz?**

Aurrekontuen plenoa galeriari begira izaten da, alderdi popularreko ordezkariandako batez be. Askatasun Haizeak taldekuak oposiziño-filosofia dake. Emakumearen Aholku Batzordea sortzia nahi dabe, baina nundik etarako doguz 7-8 milioi? Euskara teknikarixan lanpostua konbokatzen badogu, SAH-k eskatzen daben moduan, oin arteko subenziñua galduko dugu. Dana aldatu leike, bai, baina pixuzko argumentuak emonda.

**-Zertarako erabiliko da Frontoiko eskola?**

Hezkuntza delegaritzak ez dosku baimenik emoten bertan kultur etxia egitteko. Jaiotze-tasa asko igo da eta hemendik bi urtera ume danak ez dira goiko eskolan kabituko. Momentuz 3. pisua musika eskolakuendako egokituko dogu. Institutokuak be beste pare bat gela irabiliko dittue taillarrak egitteko eta aztertzen gara ia posible dan beheko solairua 0-2 urte bittarteko umiendako egokitzia. Oin momentuan ez dakagu beste lokalik baina badakagu eraikin berri bat egitteko leku posible bat begiz jota.



**TXURRUKA**  
**JATETKEA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

**Gogortuz**  
Fisioterapia zentrua

Oier Oregi Unamuno

**943 75 00 22**

Santa Ana kalea 7 Soraluze Gipuzkoa

## Irukurutzeta eguna



Irukurutzeta eguna inguruko herrietako jente mordoxkak ospatzen du

Datorren igandean-maiatzak 8- ospatuko da beste urte batez Irukurutzeta eguna egitarau honekin:

Goizeko 11etan: Pago bedeinkatun meza

12 etan: salda eta txorizoa

13:30etan: Irukurutzetara igoera

14:00etan: Bazkaria (bakoitzak berea eramanda)

15:30etan: erromeria trikitilariekin

18:00etan: jeitsiera

## Maiatzaren 8an Herri Urratsera joateko autobusa

Datorren maiatzaren 8an, urtero moduan, Iparraldeko ikastolen aldeko jai erraldoia egingo da Senpereko lakuaren inguruan. Hori dela eta, Pilelean Euskara Elkarteak bertaratzeko autobusa jarriko du.

Dagoeneko izena emateko zerrendak jarrita daude; Arrano, Iratxo eta Gilan. Irteerako ordua goizeko 9:00etan izango da Gila zubitik eta itzulerako ordua autobusean adostuko dute. Irteeraren prezioa 8 eurokoa izango da (6 bazkideendako) eta izena ematerakoan ordaindu beharko da.

## 2005 urteko danborrada ere egingo da



Danborradako antolakuntza Bartzordetik jakinarazi digute jaietako danborrada beste urte batez gitxienez egingo dela. Duela aste bi ohar bat jarri zuten herriko kaleetan danborrada antolatzeke bolondres beharra zegoela adieraziz, eta interesatuei dei bat eginaz joan den asteazkenean Ibai-ederren egingo zen billerara joateko. 5 bolondres berri hurreratu ziren eta antolatzaileek laguntza nahikoa izango delakoan danborradarekin aurrera jarraitzea erabaki dute.

## Musika Eskolaren Udaberria



Joan den apirilaren 24an, igandean, herritar asko joan zen Soraluzeko eta Bergarako musika eskolako bandek Plaza Zaharrean eskeini zuten kontzertua entzuteri. Bina pieza jo zituen banda bakoitzak eta beste bi elkarrekin jo zituzten

### IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



### JABIER ALBERDI

HARATEGI  
ARTISAU ERARA  
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32



Regina Maiztegi beste euskal preso batzuekin batera espetxeko patioan.

Regina Maiztegi 2003ko azaroaren 18an atxilotu zuen Poliziak Sevillan. Hiru egun inkomunikatuta pasatu eta gero, Brivan (Avila) espetxeratu zuten ETari laguntza ematea egotzita (baina oraindik ez dago aukusazio ofizialik). Urte eta erdi inguru darama espetxean eta oraindik ez diote epaiketarik egin. Martxoan, EPPK-arekin (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) 15 eguneko itxialdia eta 26 eguneko gose greba egin zituen. Kolektibo honen aldarrikapenak ezagutarazteko elkarriketa egin diogu espetxean (hauteskuden aurretik).

**Noizko aurrirakusten duzu zure epaiketa?**

Auskalo, euskal presoekin ikusita dago limiteraino erabiltzen dutela espetxe "prebentzioa", beraz, 4 urte ere egin ditzaket espetxeratuta epaiketarik gabe.

**Zein da akusazioa?**

Oraindik ez dut Prozesamendu Autorik jaso, beraz ez daukat oso garbi zein izango den akusazioa.

**Zelakoa izan zen detentzioa?**

Madrilgo komisaldegian inkomunikaturik pasa nituen hiru egunak oso gogorak izan ziren, kolpeak, bukatzen ez ziren galdeketak, mehatxuak,... idatziz azaldu ezineko amtes gaiztoa.

**Zelakoa da eguneroko bizitza gartzelan?**

Momentuz ondo egoten gara, hamar euskal kide gaudelako elkarrekin baina euskal preso asko daude isolamendu egoeran bizitzen, ta hori ez da izango batera erreza.

**Zer sentimendu izaten dituzu?**

Herrimina, ezintasuna, beldurra, hauek gartzelari lotuak, bestela lagunekin, kideekin, familiarekin naguanian kriston poza, ...

**Zertan pasatzen duzu denbora?**

Eskulanak egiten, irakurtzen, kirol pixka bat egiten, kideekin hitzegiten, pa-

*"Gatazka politiko baten ondorioz gaude preso, beraz, gure izaera politikoa da"*

tiono pasiatzen, presa arruntei idatziak egiten laguntzen, ...

**Zer jakin behar genuke gartzelaz?**

Gartzela sistema presoak zigortzeko egina dagoela eta ez presoak bergizarteratzeko, agintariek sinestarazi nahi doskuen moduan.

**Zer da ikusi duzun gauza gogorrena?**

Komisaldegian torturatuak izan diren kideekin hitzegitea.

**Eta bertan ikusi duzun gauzarik hobereana?**

Euskal presoaren artean daukagun laguntasuna eta sostengua.

**Zer da kanpotik gehien faltan botatzen duzuna?**

Lagunak, familia, Soraluze... ta juerga on bat ere bai!

**Eta gehien eskertzen duzuna?**

Lagunen, familian ta herriko jendearen sostengua.

**Azkenaldian igarri duzue aldatarik gartzela politikan?**

PSOeren "talante berria" ez dugu inondik ere nabaritu, alderantziz, sakanaketa gero eta gogorragoa da, euskal preso politikoen %23<sup>a</sup> isolamendu egoeran bizi da, zigorrak gero eta gogorragoak dira, gaixo dauden presoek espetxeratuta jarraitzen dute, ez digute uzten euskaraz ikasten ezta Euskal Herrian dauden unibertsitateetan ere, ezin dugu gartzelak eskeintzen dituen kurtsiloetan ezta tallerretan parte hartu, eta abar luze bat.

**Euskal presoek ematen zaien tratua ezberdina da beste presoekiko?**

Gutziz, oraintxe bertan aipatu ditudan gauzetan. Bestela askotan funtzionarioen arabera izaten da, batzuk fizioa daukate gurekin eta kriston gorrotoz tratatzen gaituzte.

**Zela ikusten da egoera politikoa gartzela barrutik?**

Nahiz ta Estatuak oztopo asko jarri, ilegalizazioa, 18/98 ulertu ezineko prozesua, eta abar. Optimismoz ikusten dugu sortzen ari den egoera berria, Nazio Ertabidaguneak lortutako aniztasuna eta gatazka politikoa konponbiderako egindako lana, ezker abertzalea hauteskudeetan aurkeztu ahal izateko euskal gizarteak egiten diharduen aldarrikapen zabalak. Ziur gaude euskal gizarteak egiten diharduen lanak bere fruituak emango dituela.

**Zein dira zure ustetan gatazka konpontzeko gakoak?**

Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpontzea denon nahia eta lehentasuna izan behar du, partiduetako interesak alde batera utziz. Beste gatazka politikoa konponketan bezala, guztion arteko elkarriketa eta negoziazioa bultzatzea, euskal herritarren eskubideak errespetatu eta autodeterminazio eskubidea onartuz, euskal herritarrei dagokigulako gure etorkizuna zein izan behar duen erabakitzea.

**Zer da itxialdi eta gose grebarekin lortu nahi izan duzuen?**

Euskal Preso Politikoei inposatzen diguten isolamendu politikoa salatzea. Gatazka politiko baten ondorioz gaituzte preso, beraz, gure izaera politikoa aldarrikatzea eta lehenago edo beranduago ziur emango den bake prozesuan parte hartzea beste euskal eragile bat bezala. Ta gure eskubide zibil zein politikoa errespetatu behar direla, horretarako ezinbestekoa da Euskal Presoak Euskal Herriratzea. Agur eta ohore Juanjo!

## Pala txapelketa finala

Pala txapelketako finala datorren ostiralean -maiatzak 6- jokatu da kiroldegiko frontoian. Bertan, Calles aita-sembleek Eibarko Eneko-Ivan bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak gaueko 22:00etan hasita. Aurretik, 20:00etan, Aitor Unamuno- Aitor Ibabe bikotea Zigor Alberdi "Orbe"-Jokin Martinez bikotearen aurka lehiatu da txapelketako 3. postua eskuratu ahal izateko.

Kiroldegiko pala txapelketa martxoan jarri zen martxan eta 8 bikote lehiatu dira orain arte finalera iristearren. Azkenean, finalerako txartela Calles aita-sembleek eta Eneko-Ivan bikote eibartarrak eskuratu dute. Jakin dugunez, ligillako partidu batean eibartarrek mendean hartu zituzten plazentziatarrek.



Calles aita-sembleak finalean izango dira

## Pelota txapelketa

Aurki hasiko da, laugarren urtez jarraian, Asier eta Iñaki-ren omenezko esku-pilota txapelketa. Izena emateko epea zabalik da jada Gila, Gaztetxe, Gaztelupe eta Arrano tabernetan eta dagoeneko 20 lagunek eman dute izena. Apuntatzeko azken eguna maiatzaren 8a. izango da eta parte hartzaileek 12 euro (kamisetarekin) edo 5 euro (kamiseta barek) ordaindu beharko dituzte. Bikote zozketa maiatzaren 11n egingo da Gaztetxean eta behin bikoteak osatuta partiduak jokatzeko hasiko dira, San Andresko frontoian.



## EMAITZAK

### Futbola

Sora 0-Hamaikak bat 1(erreg.)

Zestona 9-Sora 0 (jub.)

Sora 1- Urki 0 (kad.)

Talde nagusia jeitsiera postuetan da liga amaitzeko 3 partiduren faltan

### Esku pilota

Aitor Atxotegi

Urretxun, 22-13 irabazi Iriarteri

Oñatin, Txurrukakin batera 22-20 irabazi Azkarate-Azkarate bikoteari

Iñaki Jauregi

Graun txapelketan,

22-5 irabazi Iriarteri eta

22-7 galdu Bengoetxea bizkaitararren aurka (erdi-finaletan)

Elgetako txapelketan,

22-14 irabazi Iriarteri

Haritz Laskurainek eskuko minez jarraitzen du

**Gipuzkoako 3 txirlo bolo txapelketan,** San Andresko jaurtialdian:

1go Jesus M<sup>a</sup> Diez Asola Berri

(6 txirlorekin)

2. Sergio Rodriguez Asola Berri

(6 txirlorekin)

3. Bittor Nuñez Txurrukakua

(6 txirlorekin)

4. Luis Javier Oregi Asola Berri

(6 txirlorekin)

5. Iñaki Ariznabarreta San Andreskoa

(5 txirlorekin)

6. Unai Loiola San Migelkoa

(5 txirlorekin)

## AGENDA

**Futbola, apirilak 30ean**

Idiazabal - Soraluze (Erreg.)

Orioko - Soraluze (Juben.)


Eibartarrak - Zestoa (kadet.)

## TXOKO KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



## kutxa

gizarte ekintza

## FER. S.A.

### Industriak

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

## PLACENCIA

### KONTSUMO KOOPERATIVA

*Esku eskura! Telf: 943 75 13 45*

# Rafa Barrenetxea

*“Asiak partidua irabazten dihardu europan kontra”*

**Rafa Barrenetxea soraluzetarra Osintxuko Soraluce kooperatibako zuzendari gerentea da., Joan den apirilaren 22ra arte AFM-ko (Makina-erreminta Fabrikatzaileen Elkarte) presidente ere izan da, 4 urtez. Soraluce bezala, Elkarteko enpresa gehienak Euskal Herrikoak dira, %78a hemen ekoizten baita. Osintxuko zubi berriaren inaugurazio ostean egon gara Barrenetxearekin, sektorearen egoera eta Soraluce kooperatibaren historia gertuagotik ezagutzeko.**

**-Noiz eta zela sortu zan kooperatibia?**

Historixa politta dauka. Kooperatibia sortzeko lehenengo batzarra 1961. urtian egin zan, Eibarko Loiola tabernan. Batzarra erdi klandestinua izan zan, eta bertaratu ziran plazentziatarrak (22-30 urte bittarteko 18 gazte) bakoitza beran bidetik jua zan: autoz, autobus, trenez edo bizikletaz. Ez jakuen komeni lanegitten zebe enpresetan billera honen berri izaterikan.. Ordurako, Arrasaten hasi eta indartu zan Kooperatibismo industrialia Deba ibar guztira zabaltzen hasitta zeguan. Soraluce be orduntxe sortu zan., 1962. Urtian , 56 bazkidekin.. Lehenengo presidentia Jose Luis Eguren izan zan eta lehenengo egoitza Errekaldian euki zebe. Enpresia Osintxu auzuan jarri zan Talleres Soraluce izenakin.

*“Soraluce sektoria baino hobeto dago eskaera aldetik, baina urte gaitza izango da”*

**-Zer mesede ekarriko dau Osintxuko zubi barrixak?**

Kooperatibako personalandako (175 langile) bentaja, baina batez be sartu eta urten dabizen kamioiendako. Zubixa egittian asmua aspaldikua da, hasieretakua, baina oinarte ez da egin. Azkenian diru pribauakin egin bihar izan da.

**-Ze urte espero dozue Soralucen eta AFM-n orokorrian?**

Soraluce sektoria baino hobeto dago eskaera aldetik, baina urte gaitza izango da. Makina-erremintta sektorian 10 urtian behin krisi bat pasatzia tokau



**Bertso Begiz**  
*Lehenbiziko bileratik ia pasa den mende erdia gizon ta emakume askoren janbide ta izerdia. Ea aguro desagertzen dan oin bi urteko krisia, Asiarano luza ez dadin egin berri den zubia*  
**Neko**  
*(Doimua: Txoriak eta txoriburuak)*

**Rafa Barrenetxea**

jaku azkenengo hiru hamarkadetan. Hola izan zan 83an, 93an eta 2003an bebai. Azkenengo krisi honetatik urteztzia ez da erreza izango. Automobil enpresak Europa Ekialdeko herrialdietara eta Asiara jo dabe eta horrek eragina dauka bezeruen eskarixetan. Futbol partidu bat izango balitz, zera esango genduke: momentu honetan Asiara partidua irabazten diharduala European kontra.

**-Zer egingo dozue krisialdia gairiditzeko?**

Alde batetik ikusi egin biharko da gure

konpetidoriak (Italia, Alemania...) be zer egitten dabean. Asiara edo Poloniara juango dira? Ez dakigu. Fitxak mobiduko dittue baina ez dakigu oindiok inpaktua zelakua izango dan. Beste alde batetik, guk lana egin bihar dogu, eta kalitatezko makina berritzailiak etara. Aurki Hannoverreko ferixan bi prototipo barri etarako doguz eta gure betiko produkziñotik aparte aereonautikan sartzeko ahaleginak egingo dittugu. Merkatu berrixak lortzeko be lana egin bihar da, Indian eta Errusian batez be.

Telefona 75 24 09

## ARRANO

*tabernia*

*“ Giro euskalduna eta sanua ”*

**ETORRI ETA GOZATU**

**etxera**

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

## HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santia Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

## Argazki zaharra



## Santa Ana jai-xetan 1956an

**A**le honetako argazki zaharra, 1956. urtean Santa Ana jaietan Plaza Zaharrean ateratakoa dugu. Neska gazte kuadrilla honek ohitura zeukan zezenean urtetzeko. Egun honetarako denek alpargata zuriak eta zintta gorriak estrenatu zituzten.

Goian ezkerretik eskumara: Beatriz Romero, Angelines Alberdi, Socorrito Uriarte, Maria Asun Placencia, Maria Luisa Artolazabal, Maria Angeles Oregi, Inmaculada Egeta.

Behean ezkerretik eskumara: Rosarito Zabaleta, Arantxa Perez, Rosita Hernandez, Marisa Arizaga, Teresita Eguren, Mertxe Eguren.

Iturria: Teresita Eguren

## Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

**Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!**

Deitu

**943 75 13 04 ra**

**Aurreko alean...**



erantzuna...:  
Boskoitxi baserria kenduta.

**...eta irabazlea:  
Inmaculada Matute**

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak


**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: [etxehun@teleline.es](mailto:etxehun@teleline.es)  
[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)


20590 SORALUZE  
Gipuzkoa



# Ugaraxo



**IRAKURTZEN  
IKASTEN**



## PAPERA BIRZIKLATZEN



GOGORATZEN DUZUE AURREKO ATAL BATE-TAN GURE GELAKOEK PAPERA BIRZIKLATZEKO ZER KONPROMEZU HARTU GENUEN

BA, AGINDU BEZALA SOBERAN GELDITZEN DIREN PAPER GUZTIAK HORTARAKO PRESTATU GENUEN KAXARA BOTATZEN DITUGU. ONDOREN HERRIKO KONTENEDORE URDIN BATETARA ERAMATEN DITUGULARIK.

ZUEI, GAUZA BERA EGITEA PROPOSATU GENIZUEN, EGITEN DUZUE? HORRELA BADA JARRAITU ETA BESTELA HAS ZAITEZTE LEHEN BAI LEHEN.

LEHENGOAN ANDEREÑOAK ESAN ZIGUN, KOMUNETAN PAPER ASKO ALPERRIK ERABILTZEN DUGULA ETA GEHIAGO ZAINDU BEHARKO GENUKELA, BEHAR DUGUNA BAKARRIK ERABILIZ.

GELAN DENON ARTEAN HITZ EGIN ONDOREN, IDEIA BAT BURURATU ZITZAIGUN, TXARTEL BATZUK EGIN, IKASTETXEAN DAUDEN KOMUN GUZTIETAN JARTZEKO, EA HORRELA PAPER HARTU BEHAR DUGUNEAN GOGORATZEN GARAN.

ARGAZKI HAUETAN EGIN DITUGUN TXARTELAK JARTZEN ARI GARA.

DAKIZUEN BEZALA, GU, HAUR HEZKUNTZAKO HAURRAK ASTE SANTUKO OPOR ONDOREN ETORRI GARA ESKOLA BERRIRA ETA OSO POZIK GAUDE, GELAK OSO POLITAK BAI DIRA. BAITA ERE BADAKIGU, ALDIZKARI HAU IRAKURTZEN DUZUEN GUZTIOK, GURE IKASTETXEA IKUSTEKO AUKERARIK EZ DUZUELA IZANGO. BERAZ, HOR ESKAINTZEN DIZKIZUEGU GURE GELETAKO PARE BAT ARGAZKI.

POLITAK EZTA?





## TXIKI-INKESTA

Gustatzen jatzu liburuak irakurtzia? Zein da azkenengo irakurri dozuna? Eta gustokuena?

## AITOR HONTANGAS 9 URTE 4A

Bai, aspertuta naguanian. Oin "Markos txikiaren problema haundia" gabiz irakurtzen. Batzutan kontatzen da problema bat eta hurrenguan beste bat.



## SARA HERNANDO 9 URTE 4A

Liburu bildurgarrixak, alaiak... danetik dago. Azkenengua "Pesadillas" izan zan. Pentsatzen neban bildurgarrixa izango zala baina ez, normala zan.



## AINTZANE GALLEGO 9 URTE 4A

Marraztekuak gehixago. "Erbia eta dordoka" Lasterketa bat egin zeben eta dordokak irabazi zeban, baina tranpa eginda. Oin ez dakit seguru tranpa egin zeban.



## XABIER BENGOA 9 URTE 4A

Liburu gehixenak aspergarrixak dira. Irakurri doten liburu-rik polittena zan Joxeme Eskirol. Olinpiadetan parte hartzera eruan zeben gizon bat zan.



## ANGEL GARCIA 9 URTE 4A

Irakurtzia pixkat bai, idazia ez. Gustatzen jatana da korapillua, gertatzen dana. "Peligro en las profundidades" asko gustau jatan. Eskolan irakurri neban.



## AINHOA LEDO 9 URTE 4A

Bai, misterixuak eta abenturak kontatzen dira. Ontz txiki batek bildurra zotsan gauari eta amaneta jentian laguntzaz azkenian lortu zeban bildurra kentzia.




## Bertsoak eta Olerkiak

Guk kantatuko dugu  
Pilpoleanentzat (bis)  
Ez dakit zenbat egin  
Aukera zuentzat  
Bertso magia ere  
Hementxe egon zen  
Kantatu zuten eta  
Magia egin zuten (bis)

Bat gutxiegi da ta  
hiru gehiegi da (bis)  
zenbat egingo ditut  
birekin nahikoa.





# Ugaraxo

## LIBURUAREN EGUNA



JOAN ZEN ASTEKO OSTIRALEAN, URTERO BEZALA, LIBURUAREN EGUNA OSPATU ZEN. 1.616KO APIRILAREN 23AN MIGUEL DE CERVANTES ETA WILLIAM SHAKESPEARE IDAZLE FAMATUAK HIL ZIRELAKO OSPATZEN DA DATA HORRETAN. EGUN HARTATIK AURRERA BERAIEN OMENEZ EGUN HAU OSPATZEN DUGU MUNDU OSOAN.

LEHEN ESAN DUGUN MODURA, BIAK, MIGUEL DE CERVANTES ETA WILLIAM SHAKESPEARE, 1.616KO APIRILAREN 23AN HIL ZIREN, BAINA EZ EGUN BER-BEREAN. HORI NOLA IZAN DAITEKE? HONA HEMEN ARRAZOA:

**XIII. GREGORIO AITA SANTUAK 10 EGUN AURRERATU ZUEN KALENDARIOA,**



CESARREK EGINDAKO KALENDARIOAN ZEUDEN AKATSAK ZUZENTZEKO. ESPAINIAK "GREGORIOKO KALENDARIOA" BEREHALA ONARTU ZUEN, BAINA INGATERRAK EZ, KATOLIKOAK EZ ZIRELAKO. BERAZ, SHAKESPEARE HIL ZEN APIRILAREN 23AN BAINA INGATERRAKO KALENDARIOA KONTUAN IZANIK. GURE KALENDARIOAN (HAMAR EGUN AURRERATUTA) MAIATZAREN 3. ZEN.

LIBURUAK OSO GARRANTZITSUAK DIRA ETA GAUZA ASKOTARAKO BALIO DUTE: IKASTEKO, DIBERTITZEKO, HARRITZEKO, JOLASTEKO... GERO ETA GEHIAGO IRUKURRI BEHAR DUGU ARRAZOI HAUENGATIK. GAUR EGUN LIBURU KOPURU HAN-DIA DAGO IA MUNDU OSOAN UME ASKOK LIBURUAK IRAKURTZEKO PLAZERRA DUTELAKO. GUK GOMENDATZEN DIZUEGU IRAKURTZEA.



## DENBORAPASAK

OSATU GURUTZEGRAMA ETA NABARMENDUTAKO ZUTABEAN IRAKURRIKO DUZU NOLA EGOTEN GAREN KLASEAN.

- A) HEGASTIA DA, EZ DU HEGAN EGITEN ETA TXURIA ETA BELTZA DA.
- B) EURIA ETA EGUZKIA HASI DUENEAN ZERUAN EGOTEN DA.
- C) AITAREN AITA EDO AMAREN AITA ZURETZAT DENA.
- D) BETI POZIK DAGOEN PERTSONA.
- E) DASTATZEKO ERABILTZEN DUGU, GARIA DA ETA AHOAN DUGU.
- F) AKERRAK HORRELA DITU ADARRAK.

A									
B									
C									
D									
E									
F									

NATURAREKIN LOTUTA DAUDEN 5 HITZ BILATU.

A	X	M	U	Z	T	M	E	N	D	I	A
K	N	U	X	B	H	G	T	D	O	V	T
I	T	I	Z	O	M	K	O	T	O	X	M
C	P	N	I	B	A	I	A	I	Z	N	O
K	K	O	S	T	A	L	D	E	A	T	Z
K	A	A	T	U	I	P	X	N	T	N	A
H	A	R	A	N	A	M	O	I	I	M	L

# Sentitzeko modua, izateko modua

Ormazabal   
BARNE ARKITEKTURA

Ormazabal Barne Arkitekturan, xumea konplexuaren gainetik ulertzen duen minimalismoan oinarritzen da. Estetika garbia eta funtzionaltasuna dira gure lanaren oinarri.

Hiru gune ditugu, Arrasate eta Oñati artean banatuak. Gure jarduera barne-diseinua eta gaur egungo altzariak dira. Gure lantaldeak zure leku eta beharretara egokitutako proiektua egingo dizu.

Ormazabal Barne Arkitekturak 5 sail ditu:  
Sukaldeak, Zeramika, Bainugelak,  
Etxea eta Argiztapena.

Ormazabal ARRASATE  
Garibai | Tel.: 943 71 19 81

Ormazabal OÑATI  
Sta. Marina 4 | Tel.: 943 78 30 58  
Apaolaza A-2 | Tel.: 943 78 16 40

## Sukaldea ulertzeko beste modu bat

Sukaldean eguneko ordu asko pasatzen dira.

Altzari asko mekanismo eta korronteen hartuneak ezkatuzko diseinatuak daude, baina azken itxura, sukaldearen azala hain zuzen, garbia da. Sukalde minimalista aukera dotorea da gero; espazioarekin, zabaltsunarekin gozatzen dutenezat egokia. Dotorezia eta funtzionaltasuna batzen dituen aukera paregabea.



**Osaka sukaldea.** Sukaldea handiagoa egiten duten lerro horizontalekin diseinatu dago, eta argitasunaren eta iluntasunaren arteko nahaste ederrekin osatua, altzariaren ukitua duela. Modaz gain sekula gelditzen ez den estiloa.

## Gaur-gaurko zeramika

Sukalde eta bainugelak janzteko zorrotasuna behar da aukeratzeko orduan. Segituan ikusten den gainazala da; hortaz, garrantzitsua da itxura zaintzea; era berean, irau dezala eskatu behar zaio eta erraz garbitu ahal izatea.

Mosaikoa gaur-gaurko estaldura da, denboraz gairik bermea eta aberastasuna eskaintzen du hormetan. Koloreen eta itxuren arteko nahasketaren eraginez gelak bizitza eta estilo propioa hartzen du.

Mugimendua mosaikoaren jatorrian dago: koloreen tonuen arteko ezberdintasunak mugimendua duten irtegunek sortzen dituzte.

## Etxea: dotorezia neurria hartzean dagoenean

Egongela da etxean gehien ikusten den gunea, baita denbora luzean pasatzen dugun tokia ere. Bertan egiten ditugun jarduerak direla eta (irakurri, telebista ikusi, atseden hartu, hitz egin) egongela da altzariz janzteko eta apaintzeko tokirik zailena.



**Apal ireki eta lakatuekin osatutako egitura.** Beirazko ate irristailua, ate handiak, tiradera eta apal zabalak, tamaina trinkoak eta lerro garbiak egiturak osatzeko orduan.

## Sofa edo besaulkia aukeratzea

Itxurarekin eta kalitatearekin batera beste ezaugarri bat ere kontuan hartu behar dugu aukeraketa egiterakoan: egongelan daukagun tokia eta antolamendua. Jarduerak erabakiko du altzariaren egitura eta tapizatuaren osagaia.



## Era egokian txukuntzea

Armairu on batek metalezko oinarria duen egitura izan behar du, eta horrek altzariaren kalitatea bermatuko du. Armairuek aurrealde leunak dituzte nagusiki, eta era askotako akaberak azaltzen dituzte, beiradunak bereziki.



## Bainugelak: funtzionaltasuna, ergonomia eta abangoardia

Bainugelaren plangintza egiterakoan komun-ontziak erabakigarriak dira. Batzuk zintzilikaturik, beste batzuk oina dutenak, badaude horman sartutakoak eta komun txikiak bereziki diseinatutakoak.



**Moduludun altzariak:** aldakortasuna, moldatzeko gaitasuna eta arintasuna. Bainugelako altzariek izango dituzten ezaugarri dira.

## Argitu baino zerbait gehiago


Argiztapena hein batean ukitu ezin den zerbait da, baita gela erabat alda dezakeen zerbait ere. Barneko gelak erosoak izan daitezten oso garrantzitsua da argi puntuak egoki jartzea.

Diseinuko lanparak dira, argia emateaz gain goxotasunez betetzen dituzte hutsik dauden guneak, baita itzalita daudenean ere.



**Offfiza:**  
mahai  
gainean  
zintzilikatutak  
o lanpara  
jartzen da  
argitasun  
lausoa eman  
diezaion.

**Egongela:**  
mahai  
gaineko  
lanpara.



# www.clinicarecalde.com

## MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK



Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: 943 20 18 44



**Elgoibarko Institutua**

Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: [bulegoa@elgoibarbhi.net](mailto:bulegoa@elgoibarbhi.net)

[www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)



## ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2005/06 IKASTURTEA



- ✓ Azken 25 urteetan batxilerra 3000 ikasle inguruk gurekin gainditu dute.
  - ✓ Azken 10 urteetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.
  - ✓ Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra inguruko gazteak ezagutzeko eta harreman berriak egiteko.
- ✓ Unibertsitaterako zein goi mailako hezkuntz ziklo formatiboetarako prestakuntza.
- ✓ Batxilerretako ibilbide guztiak garatzeko norberaren interesen arabera ikasbidea eratuz.  
(Zientifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)

**BATXILERREKO AURREMATRIKULA** apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

**ZIKLOETAKO AURREMATRIKULA** ekainaren 1etik 8ra

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.